

AHTren aurkako ekintza Donostiako kursaalean

MUGITU! MUGIMENDUA :: 26/01/2020

Acción de Mugitu! el pasado miércoles en el Kursaal de Donostia durante el Congreso Internacional ferroviario Basque Railway

Gaur asteazkenean, goizeko 9:45ean Donostiako Kursaalean Eusko Jaurlaritzak antolaturiko nazioarteko tren sistemari buruzko kongresua hasi da, Basque Railway izenekoa, *“Abiadura handia martxan ezartzearen erronkak”* lemapean. Iñigo Urkullu lehendakariak hasiera ofiziala egin behar zion kongresuari, baina, agertu ez, eta Eneko Goia, Donostiako alkatea, izan da inaugurazioa gauzatu duena.

Alkatea eszenatokira igo eta hitza hartua duenean, AHTaren aurkako desobedientziaren aldeko mugimenduaren Mugituko 4 ekintzaile bere ondora jarri eta pankartak eskuan ondorengo aldarriak botatzen hasi dira: *“AHTrik ez”, “Herria bizirik”, “el desarrollo es vuestro chollo”, “tenéis el corazón lleno de hormigón”, “la ostia a 120 es mucho más potente, la ostia a 280 es mucho más sangrienta”*, azpiegituraren kontrako bertso batzuk abesteaz gain. Segurtasun zerbitzuak ekintzaileak aretotik aterarazi dituzte. Ekitaldia gutxi gorabehera 10 minutuz eten egin da.

Alkateak, ekintzaileen aurka irain batzuk bota ondoren (*“estos impresentables”*), abiadura handiko trena eta beste proiektu txikitzaileak, Donostiko metroa bezalakoa, aldarrikatzen jarraitu du. Segidan, AHTri buruzko bideoa proiektatu eta gero, Arantxa Tapiak, Jaularitzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua, hitza hartu du Jaularitzaren lana goraipatuz eta bertan zegoen José Luis Abalos ministroari, Espainiako Garraio eta mugikortasunekoa, Euskal Y Grekoa proiektua bultzatzeko eskatuz. Momentu horretan, beheko eserlekuetan jarriarik zegoen ekintzaile bat altxatu da eta AHTaren aurkako aldarriak ozen berriro oihukatu ditu eskuorriak botatzeaz batera, ekitaldi ofiziala berriro etenduz. Berehala aterarazi dute. Denbora gutxira, Arantza Tapia sailburua berriro segitzen saiatu denean, beste ekintzaile batek berriro ekin dio aldarrikapenari hirugarren aldiz ekitaldiaren etena gauzatuz.

Ekintzaile guztiak identifikatu ondoren, Kursaaletik bota dituzte.

Mugitu! Mugimendua

ACCION CONTRA EL TAV EN EL KURSAAL DE DONOSTIA

El miércoles a las 9:45 de la mañana en el Kursaal de Donostia dió comienzo el Congreso Internacional ferroviario *Basque Railway* organizado por el Gobierno Vasco bajo el lema *“Retos de la puesta en servicio de la alta velocidad”*. Un congreso cuya inauguración oficial iba a ser realizada por Iñigo Urkullu, que no ha aparecido; ha sido efectuada por el alcalde de Donostia Eneko Goia.

Cuando el alcalde ha subido al escenario y empezaba a hablar, 4 miembros del movimiento de desobediencia al TAV Mugitu! se han colocado junto a él portando banderolas y han reivindicado en voz alta: “AHTrik ez”, “Herria bizirik”, “el desarrollo es vuestro chollo”, “tenéis el corazón lleno de hormigón”, “la ostia a 120 es mucho más potente, la ostia a 280 es mucho más sangrienta”, además de cantar unos versos contra la infraestructura. Miembros del cuerpo de seguridad han desalojado a los activistas de la sala. El acto se ha interrumpido unos 10 minutos.

El alcalde, después de proferir algunos insultos contra los activistas (“estos impresentables”) ha seguido reivindicando el tren de alta velocidad y otros proyectos depredadores como el metro de Donostia. Seguidamente han proyectado un video sobre el TAV y la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras Arantxa Tapia ha tomado la palabra para elogiar la labor del Gobierno Vasco y para pedir al ministro español de Transporte y Movilidad allí presente, José Luis Ábalos, que impulse el proyecto de la Y Vasca. En ese momento, otro activista se ha levantado desde el patio de butacas y ha vuelto a corear a viva voz consignas contra el TAV, paralizando nuevamente el acto oficial. En seguida lo han expulsado. En breve, cuando de nuevo la consejera Arantxa Tapia ha intentado continuar, otro activista ha repetido la misma acción paralizando por tercera vez el acto.

Todos los activistas han sido desalojados del Kursaal previa identificación.

Mugitu! Mugimendua • <http://mugitu.blogspot.com/>

<https://eh.lahaine.org/ahtren-aurkako-ekintza-donostiako-kursaalean>